

Ebazpena: R 9/2022
Espedientea: 25/2012

Gasteizen, 2022ko otsailaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landin batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiarekiko (aurrerantzean BFA) planteatutako gatazkari buruz, zeinaren helburua baita G SL zergapekoaren egoitza fiskala zehaztea, 2009ko martxoaren 27ra arteko atzeraeraginezko ondoreekin. Gatazka hori 15/2012 espedientezenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1.- Bi hilabeteko epean erantzunik jaso gabe egoitza aldatzeko proposamena egin ondoren (indarrean zegoen orduan), ZAEAk gatazka bat planteatu zuen 2012ko uztailaren 27an, deklaratzeko eskatuz GSL erakundea 2009ko martxoaren 27tik aurrera Bizkaian ez, baizik eta Madrilen zuela egoitza.

2.- Hurrengo urteetan 34/2012 gatazka ebatzi zen, eta haren bazkide bakarrak egoitza Madrilen zuela deklaratu zen.

3.- G SLko administratzaileak, GA jaunak, kargu bera zuen beste sozietate batzuetan, eta Arbitraje Batzordeak, era berean, haiek ere benetan Madrilen zutela egoitza deklaratu zuen (SDU 14/2012 gatazkan).

T SLU sozietateari buruzko 34/2012 gatazkaren ebazpenean Arbitraje Batzordeak esan zuen: *“Sozietatearen administratzaile bakarrari dagokionez, hots, GA jaunari dagokionez, Arbitraje Batzorde honek bere egoitza fiskalari buruz planteatuta eta ebazpenaren zain dagoen gatazkan erabaki dezakeenari kalterik egin gabe, nabarmentzekoa da 2007-2010 aldian T SLren administrazio-lanak egiten zituela, titular bakar gisa, beste 46 erakunderen administrazio-lanekin batera; azken horietatik 34k Madrilen zuten egoitza, eta horretatik objektiboki ondoriozta daiteke bere lanaren zati handi bat halabeharrez egoitza horretan garatu beharrekoa zela”.*

4.- Behin BFari hasierako alegazioen izapidea eman ondoren, hark amore emateko idazkia aurkeztu du, eta ZAEAREN uzia onartu du.

5.- Entzunaldi-izapiderik egin ez denez, zergapekoari ez zaio alegazio-izapiderik eman, eta, beraz, ez dago prozeduran pertsonatuta.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordeak eskumena du zergadunen egoitzari buruz sortzen diren desadostasunak ebazteko, 12/2002 Legearen bidez onetsitako Ekonomia Itunaren 66. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.- Egoitza aldatzeko prozedura 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan (aurrerantzean EIABE) aurreikusitakoaren arabera izapidetu da.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiak amore emateak prozeduraren xedea galtzea dakar.

4.- Arbitraje Batzordean izapidetzen diren gatazketan, zergapekoari entzunaldi-izapidea ematen zaio, eta, beraz, ebazpena betearazi beharrekoa da, ez soilik alderdien artean, baizik eta haren aurka ere bai.

Hala ere, BFAk amore ematearen ondorioz, Arbitraje Batzordearen ebazpenak ez du eragotziko ZAEAk egoitza aldatzeko prozedura antolatu behar izatea zergapekoari dagokionez, 1065/2007 Errege Dekretuaren 149.4 artikuluan araututako izapidearekin aurreikusitakoa, hain zuzen.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- 25/2012 gatazka artxibatzea izapide gehiago egin gabe, prozeduraren xedea gerora galtzeagatik, BFAk amore ematearen ondorioz.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta G SLri.